

## KONTROL MOZIOA

### dbuseko zerbitzuari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatan azter dadin. Mozioa 2020ko ekainaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

2020ko martxoaren 14an, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela eta, alarma egoera deklaratu zen.

Alarma egoera honek mugikortasunaren murriztapena ekarri zuen eta hortaz, dbuseko zerbitzua murriztapen honetara egokituz joan da. Hori egiteko, DTK-k hainbat aldiz egokitu behar izan du bere eskaintza hilabete hauetan zehar. Gautxori zerbitzuak kendu ziren lehenik, lanegunetan larunbatetako zerbitzuak ezarri ziren, autobusetako edukierak mugatu egin ziren eta egokituz joan dira, zerbitzuen maiztasunak murriztu dira, linea batzuk zerbitzuz kanpo utzi dira... eta gaur arte legearen arabera doikuntzak egiten joan dira zuzendaritzatik.

Hasieratik langileek, haiek ordezkatzeko dituzten sindikatuen bidez, “batzorde iraunkorra” osatu eta zuzendaritzak hartzen zituen erabakiekiko zalantzak adierazi zituzten.

Azken aldaketak direla eta, lekuen % 100 erabili daiteke, baina oraindik ere ez dira zerbitzu guztiak berreskuratu. Hori horrela egun zerbitzuen % 84 dabil lanegunetan, % 80 larunbatetan eta % 85 jaiegunetan.

Baina hala ere, oraindik linea batzuk etenda daude 21, 43 eta 46. lineak, alegia. Eta 38. linea aktibatze eskarrieko taxibus zerbitzu baten aukera aztertuko du.

Gogorarazi behar dugu 21. linea (Mutualidades-Anoeta) gehienbat emakumeek erabiltzen dutela, erabiltzaileen % 65 emakumeak baitira, eta haien batez besteko adina 55,88 urte dela.

Bestalde, 38. linea (Trintxerpe-Altza-Molinao) eskarrieko taxibusa bilakatu nahi dute. Linea honen erabiltzaileen % 68 emakumeak dira eta % 30 70 urtetik gorakoa, eta % 20 59-78 urte bitartekoa. Gainera, gogorarazi behar dugu, linea horrek Berrako egoitzari zerbitzua ematen diola.

Bestalde, lehen eta azken irteerak berreskuratzea eskatzen zuten langileek eta larunbatetako ordutegia jai egunetako berbera izan ez zedin.

Ekainaren 15eko batzordean linea guztien berreskurapenari buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariaren bidez jakin genuen Udaltzaren Gobernuak ez duela asmorik oraingoz, ezta epe laburrera ere, linea guztiak eta ohiko maiztasunak berreskuratzeke.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

EH Bilduren ustez, neurri hauekin dbusek orain arte eskaintzen zuen kalitatezko zerbitzua arriskuan jartzen da, erabiltzailea bestelako garraiobide ez jasangarria erabiltzera bultzatuz.

Argi dago, Donostiako garraio publikoak eskaintzen zuen zerbitzua berreskuratu nahi badugu eta erabiltzaileek berriro dbusen konfiantza izatea nahi badugu, zerbitzu erakargarri eta osatu bat eskaini behar dela. Hori egin ezean, erabiltzaileak beste garraio mota bat erabiltzera bultzatuko du Udal Gobernuak. Ohitura berri horiek ez ezartzea eta kalitatezko garraio publiko baten aldeko apustua egitea da orain egin beharrekoa.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

-Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari etenda dauden lineak berrezarri ditzala eta zerbitzuaren % 100 berreskura dezala.

Donostian, 2020ko ekainaren 17an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia